

1 RUTXULO / 1997 / 06 / 13

Kritika



MIKEL LABOA ZUZENEAN

Elkar, 1997

- Gasteizko Principal antzokian (Korrika 95) eta Donostiako Victoria Eugenia antzokian (1996ko martxoan) grabatua.
- 19 abesti.
- Kolaboratzaileak: Iñaki Salvador, Josexo Silguero, Eduardo Salvador, Aitor Landeta, Carlos Itoiz, Joseba Tapia, Jesus Arze, Joseba Urzelai eta Zumeta.

Laboadiktoak gehiago behar eta merezi du

Mikel Laboaren azken urte hauetako lege zaharra jarraituz, bere diskografia patxadan handitzen doa. «14», bere aurreko diskoa argitaratu zenetik hiru urte pasatu direla kaleratu da zuzeneko hau.

Kantari donostiarrak bere karrera luzearen abesti enblematiko batzuk bildu ditu, bere jarraitzaileei omenaldi gisa har daitekeen Gasteiz eta Donostia artean grabatutako CD honetan. Nonbait abeslariaren sortze-ahalmena nekatua dago, nobedaderik eskaini ordez urtetan zuzenean landu dituen hamalau kantu abesten ditu eta.

Laboaren lanaren katalogo txiki honetan atzera begira momentu ahaztezinak aurki daitezke: «Baga-biga-higa» edota «Komunikazio-inkomunikazioa», kantariaren garai ausartenetako bi eredu bereziak.

«Goizuetan» eta «Oroitzen zaitudanean, ama» kantek artistaren alde herrikoia erakusten digute. Aldi berean Atxaga, Sarrionandia, Lete

eta Brecht-en letren bidez mende honetako olerkigintzan zehar txango intimista eta gozosa gidatzen du abeslariak.

Laboak laguntzaile talde eder bat aurkitu du disko hau burutzeko. Haien artean Iñaki Salvador pianojolearen lana azpimarratzekoa da. Musikari estimatuak Laboak behar duen erritmoa soberan ezagutzen du, eta bere presentzia bermea izaten da kantariaren kontzertuetan.

Bestalde, abeslariak Salvador lagunaren gain pisu gehiegi jartzen du, behar bada ahaztuz bere diskak erosten dituenak Laboaren ahotsa eta kitarra entzuteagatik egiten duela gastua eta ez beste arrazoiengatik. 75 minutu eta 33 segunduko diska batean, Iñaki Salvadorri 10 minutu pasatxo eskaintzea gehiegi ez al da? Hiru urtez zain egon ondoren Laboadiktoak Laboa gehiago merezi eta behar du.

ANDONI ALONSO